



ITTEN BAT

(* Itten: arrastua, pistia

Kontu kontari

ANBOTOKO SEÑORIA

Gure zaharrak esaten euen zazpi seme zittuala Señora horrek eta sekula etzala faten elizan sartzera eta, azkenenguekin, gizona fan zala abadiagana hori esatera, eta abadiak esan otsala **lotuta izango bazan be eruateko elizan sartzera**. Eta burdixan daroiala kateiak lotuta, katia danak eten bidian eta esan otsala:

"Zazpi seme mundurako eta bat be ez zerurako.

Adios, Martín Murubeko"

Hori ei da Anbotoko Señoria.



Goguan hartzekuak

NUMERUAK ZELA ESKRIBIU

Batuan eskribitten diran moduan eskribiuko dittugu numeruak nahiz eta gure artian holako aldaerak sarrixago entzuten diran: *larogei, seirehun, zazpirehun, zortzirehun, bederatzirehun, milla, bi milla, milloi bat /millue bat, billoi bat /billue bat.*

0 : zero, huts	14 : hamalau	38 : hogeita hemezortzi	600: seiehun
1 : bat	15 : hamabost	39 : hogeita hemeretzi	700 : zazpiehun
2 : bi	16 : hamasei	40 : berrogei	800 : zortziahun
3 : hiru	17 : hamazazpi	50 : berrogeita hamar	900 : bederatziahun
4 : lau	18 : hemezortzi	60 : hirurogei	1.000 : mila
5 : bost	19 : hemeretzi	70 : hirurogeita hamar	2.000 : bi mila
6 : sei	20 : hogei	80 : laurogei	3.000: hiru mila
7 : zazpi	21 : hogeita bat	90 : laurogeita hamar	4.000 : lau mila
8 : zortzi	22 : hogeita bi	100 : ehun	10.000 : hamar mila
9 : bederatzia	23 : hogeita hiru	200 : berrehun	100.000: ehun mila
10 : hamar	...	300 : hirurehun	1.000.000 : milioi bat
11 : hamaika	30 : hogeita hamar	400 : laurehun	1.000.000.000.000 : bilioi bat
12 : hamabi	31 : hogeita hamaika	500 : bostehun	
13 : hamahiru	...		

Dagokixon aditza jarri

1. Gu Piriniotara goiaz, eta zure gurasuai itzi Zarauzko etxia.
2. Ederra pasau gure lagunairi! Sartu dira etxian, eta dana hankaz gora topau daue.
3. Zeu be egon ziñan kontzertuan, ezta? Akabera ikusi andriarekin berbetan, baiña zuk eninduzun ikusi.
4. Aizue, barkatu, kurpilla zulatu xaku. Eruango , mesedez, gertuko garajeren batera?
5. Nik behin eta berriz esan zure lagunairi leku arriskutsua zala, baiña eurak kasurik be ez eta, begira, orain kontuak

Aukerak: *gaizue, zindduten, nosten, xate, dostegu*

EUSKERAZ EGOGI

DIAZ adizkixa

Adizki hau akatsa baiño, geure hizkera barruko beste aldaera bat dala esango geke. Herritarra zer auzotakua edo giza-moltzukua dan, holako aditz forma entzuten da geure herrixan:

Dira (bokal arteko R biguna ezta entzuten) + z (pluralgillia)

-Nunguak diraz, ba, neskaitilla-mutiko honeik?

-Nun diraz, ba, umiok? Ezkutau diraz hemendik ezer esan barik!

-Zela mobiu diraz, ba, egitten dauen eguraldixarekin? Eztakit, ba, baiña mobiu diraz!

-Agerketan badiraz, abixau e!

-Ondo portaitten badiraz, erregiak be ondo portauko diraz eurekin.

-Hor, Siria aldian, ezer be barik geratu dirazenak be, esango daue zoezer!

Dagokixon aditza jarri
1. dostegu
2. xate
3. zindduten
4. gaizue
5. nosten

ERANTZUNAK



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

SORGINZULON¹

Sasue batian ba ei eguen sorgin bat Sorginzulon, eta hori dala-ta, inguruko danak billurrez aidian bizi ziran. Egun batian auzoko neskatillak susto bat emutia pentsau euen sorginorri eta, Kortakogain parian alkartu, eta han fan ziran Sorginzulora hango bizilaguna tentaittera, ia zer pasaitten zan. Danetatik balientiena zana aurreratu egin zan, bestiak atzeratuago geratu ziran bittartian, eta orduan... barruan zaixo² eguen sorgintzarrak haren hotsa sentiu orduko, diar egin otsan diabruari:

- *Hel hakixo, hel hakixo, ahal bahakixo*³

Eta diabruak erantzun:

- *Bai, aldian ezpaleko erruda eta aapixo*⁴!

Harrezkero sorgiñorren barririk eztakogu!



¹ Arantzazu auzuan, Aldaola errekan gora, San Juan Artixaren paretxuan.

² Erne

³ Fan berarengana eta obatu, ahal badok.

⁴ San Juan egunian bedeinkaketa ziran landarak. Hareikin "kuttunak" (amuleto) egitten ziran, afieldtxuarekin bularran lotuta edo lepotik txintxiliz eruatzen ziranak, gauza txarretatik defendituko balixo eueilla uste zalako (sorgiñak eta diabruak tartian). Sorginzulora fandako neskak be euren kuttunak bistan eruan zittuain, bazan ezipazan be!

Goguan hartzekuak

SIGLAK (1)

Egunero-egunero makiña bat siglaz balixaitten gara talde, erakunde, alderdi edota bizitzako hainbat gauza adierazoteko, baiña tamalez euskeraz gabiltzenian be sigla horreik erderaz jaurtitten dittugu, gehixenetan halaxe entzuten dittugulako kalia eta hedabidietan. Ahal dan neurrian, behintzat, horri bueltia emuten hasteko, ikusi dagigun euskeraz zela esaten diran askotan ebalten dittugun sigla batzuk:

Erderaz	Euskeraz	Esanguria
UE (Unión Europea)	EB	Europar Batasuna
MCE (Mercado Común Europeo)	EEE	Europako Ekonomia Elkartia
EEUU (Estados Unidos de América)	AEB	Ameriketako Estatu Batuak
CAV (Comunidad Autónoma Vasca)	EAE	Euskal Autonomia Erkidegua
UPV (Univerdidad Pública Vasca)	EHU	Euskal Herriko Unibersidadia
EITB (Radio Televisión Vasca)	EITB	Euskal Irrati Telebistia
GV (Gobierno Vasco)	EJ	Eusko Jaurlaritza
EUDEL (Asociación de Municipios Vascos)	EUDEL	Euskal Udalen Elkartia
DNI (Documento Nacional de Identidad)	NAN	Nortasun Agiri Nazionala
IVA (Impuesto Valor Añadido)	BEZ	Balixo Erantsixaren gaiñeko Zergia

EUSKERAZ EGOGI

GAZ adizkixa

Adizki hau akatsa baiño, geure hizkera barruko beste aldaera bat dala esango geke. Herritarra zer auzotakua edo giza-moltzukua dan, holako aditz forma entzuten da geure herrixan:

- **gagoz > gaz**
- **xagozak > zazak / zatzak / zautzak**

EGON aditza

Oraiña		
	Ofiziala	aldaeria
Gu	gagoz	gaz
	<i>gagozak</i>	<i>ga(t)zak</i>
	<i>gagozan</i>	<i>ga(t)zan</i>

Lehena		
	Ofiziala	aldaeria
Gu	gegontzen	gazen
	<i>gegontzan</i>	<i>ga(t)zaken</i>
	<i>gegontzanan</i>	<i>ga(t)zanan</i>

Oraiña		
	Ofiziala	aldaeria
Hareik	dagoz	dagoz
	<i>xagozak</i>	<i>za(t)zak</i>
	<i>xagozan</i>	<i>za(t)zan</i>

Lehena		
	Ofiziala	aldaeria
Hareik	egozen	egozen
	<i>xagozan</i>	<i>za(t)zaken</i>
	<i>xagozanan</i>	<i>za(t)zanan</i>

- *Gu konforme gaz.*

- *Han gazen gu autobusari begira, eta zela etzan agertu taxisa hartu bihar izan geben.*

- *Hemen ga(a)zenak zer esaten dogu, eskurtsiñora bai ala ez?*

- *Parisen gatzaken ha pasau zanian.*

- *Ederrak zazak, ba, Patxik ekarrittako perretxikuak!*



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

SORGIÑA TXIMIÑIXAN BEHERA

Garai batian normala edo ohikua izaten zan andraak gabian goruetan¹ jardutia, harigiñan. Hala, baserri baten andriak goruetan ziharduenian, etorten xakon katua tximiñixan behera eta esaten otsan: **txitxi eta papa, eta papa goxua**, eta handik bialketako andriak emun bihar izaten otsan urdaixa eta txorixua ogixagaz.

Egun baten, katuorri fronte egittek andriaren orde zizona geratu zan goruetan, eta suburdiña itzi eben sutan goriketan. Gaberdixan, pentsautako moduan, etorri zan katu gogaikarri hori eta harek esan: **Bizarrak eta goruetan?**

Eta honek eraso: **Katua eta barriketan?**

Orduan burrukan hasi ziran bixak eta gizonak sutan gorittutako suburdiñagaz **egundoko zapinddua**² emun otsan katuorri.

Hurrengo egunian aldeko baserriko amandria gorputz dana maillaatuta eta mankautea agertu zan.



¹Hilando con rueca

²Sekulako egurtua

Goguan hartzekuak

SIGLAK (2)

Fan zan hillian ekinddako zirindariari jarraituko xaugu orainguan, sarri ebaltzen diran beste hamar sigla euskeraz zela diran ikusteko, baiña aurretik orduan eginddako hankasartze bat zuzendu gura dogu:

UPV/EHU (Universidad del País Vasco)	UPV/EHU	Euskal Herriko Unibersidadia
--------------------------------------	---------	------------------------------

Erderaz	Euskeraz	Esanguria
PIB (Producto Interior Bruto)	BPG	Barruko Produktu Gordiña
IVAP (Instituto Vasco de la Administración Pública)	HAEE	Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundia
BOPV (Boletín Oficial del País Vasco)	EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarixa
IBI (Impuesto de Bienes Inmuebles)	OHZ	Ondasun Higieziñen gaiñeko Zergia
ONU (Organización de Naciones Unidas)	NBE	Nazio Batuen Erakundia
RGI (Renta de Garantía de Ingresos)	DBE	Diru-sarrerria Bermaketako Errentia
EHNE (Sindicato de Agricultores de Euskal Herria)	EHNE	Euskal Herriko Nekazarixen Elkartia
TGV (Tren de Alta Velocidad)	AHT	Abixara Haundiko Trena
BCE (Banco Central Europeo)	EBZ	Europako Banku Zentrala
FMI (Fondo Monetario Internacional)	NDF	Nazioarteko Diru Funtza

EUSKERAZ EGOGI

Establezimenduen izenetan -a artikulua ez ifinttia

Orainddiok be sarri samar ikusten dogu akats hau establezimenduen izenetan. Etsenplurako ikusi Donostiako autobus geltoki barrixaren gaiñan 2016-02-6ko Berria egunkarixak dixuena:

De Norte a Sur du izena geltoki berriko kafetegi berriak; horrela, gaztelera batuan. Halere, ia asmatu egin dute gero errotulu nagusian: "Kafetegi, jantoki". Artikulua lehen plateran jateko atera dute, antza. (sic).

Herrixan be badakogu honen adibidiak: **Portu kafe*, **Bizipoz kafe* ...

Jakin bihar dogu, euskeraz, erderaz ez moduan, establezimendu bat izentaitteruzkuan danen aurretik izen propiua jarri bihar dala eta ondoren dendaren izen komuna, beronen azkenian **-a** edo **-ak** (artikulua) jarritta, esaterako:

Udal euskaltegia, Altuna estankua, Echeverria jatetxia, Juanitosa bazarra, Herri eskolia edota Osi kirolak...

Beraz, goiko izen horrean orde honeitxek biharko lirake: *Portu kafea, Bizipoz kafea* ...

Garai batian bazan plazako arkupietan, orain *Oñati* eta *Arkupe* tabernak dagozen lekuan, beste kafe famosu bat hirurogeita hamargarren hamarkadan zarrau zana:

Garaikoetxea kafia. Oraingo jentia agua gozau gura dogunian *Bizipoz* edo *Portu* kafietara faten garien moduan, aurreko gizaldikua kafe haretara faten zan kafia hartuaz domeka arratsaldia pasaittera.



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

NUN JO ZEBEIN, BA, AZKENENGUA?



Aurtengo kintto egunian txikiteo formala jo giñuan egunari dagokixon moduan, eta sasue bateko herriko ultzegiñak eta errementarixak itsasua zapaldu barik Tetuan**etik** Kubara faten ziran moduan, gu San Lorentzo goixenian daguen Aldapa tabernan hasi eta Harripen akabo giñuan aittatuko dittugun taberna honeik danak ondo zapaldu eta gero:

Aldapat**ik** Artxubiñera, handik kale aldera egin eta hurrengo sartu-urtena Otamendiñian egin giñuan. Handik beheratxuago fanda txinuenian sartu gintzuan batzuk eta beste batzuk Boisen. Torrena eta Umerezena alde batera itzi gitxuan, zarrauta dagozelako, bestela hareittan be busti! Gero handik Naparreneko kantoian ezkerrera hartu eta Atzeko kalera pasauta Iturritxora, ondoren Aloña Mendira, beheratxuago beste bat Baserritarrenian. Handik Kale Barrira etorritta, Arranora, gero plazara, eta han taberna bat bakarrik bisittau giñuan, Oñati, kuadrillia ia potraka hasitta xaguan-eta. Ondoren Kale Zaharrera, eta, han lehenengo, Pakonian hartu giñuan txikito bat, gero Luisenian, gero beste bat Onan, gero Illarramendiñeneko kantuetik behera fanda Aitta Madina kaleko Ongin beste bat eta, atzenian, halako baten Harripen akabo giñuan Bacoren omenezko ibillaldi loriotsua. Barkatu, gogorrenak, Kastillonari agur egindda, Debatarrenian akabo ei xuain. Eta handik xaguka-xaguka danok etxera.

Zenbat kontau ditxuagu? Arraixua, benetan diotsuet, aurtengo kinttuak marka guztiak apurtu ditxuagu. Orain egun batzuetan porrusaldia hartu bihar gibela garbiketako!

Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ONTZIXAK I

- | | |
|------------------|--|
| 1. Pitxar, -ra | a. Ura edo esnia eruateko ebalten dan latuezko edo galtzairuzko ontzixa. |
| 2. Murko, -ua | b. Ardaa eruateko, gordeteko eta bertatik zuzenian erateko narruzko ontzi-moduko txikiña. |
| 3. Tupin, -ña | c. Bi zuloko eta helduleku bateko buztiñezko urontzi itxixa. |
| 4. Zahato, -ua | d. Metalezko edo buztiñezko ontzi haundixa janak egosi eta gordetekua (txorixuak olixotan, arrautzak karetan...) Esap. <i>Konturatu orduko ardau tupinkadia eran xok horrek.</i> |
| 5. Marmitta, -ia | e. Buztiñez, kristalez edo bestelako materialez eginddako ontzixa, aixkomente ura zerbitteko ebalten dana. |

Erantzunak: 1e, 2c, 3d, 4b, 5a

EUSKERAZ EGOGI

Bideklinaziñua

Bideklinaziñua da bi deklinaziño kasu gehiketia izenari, normalian *zeiñen* kasua (-re) + lekuzko kasuren bat (*nun*, *nungua*, *nundik*, *nora*, *norako*, *noraiño* eta *noruntz*). Eta formula hori askotan ebalten dogu establezimendu bat aittaketaruzkuan, baldin eta bere izenak edo gaitzizenak pertsona bateri edo famelixa bateri egitten baxao erreferentzia; bestelako kasuetan, hau da, izen arrunta edo propixua danian, edo marka komertzial bat danian, deklinaziño kasu normalak ebalten dittugu.

Etxe baten gaiñian berbetan gabiltzianian be sarri ebalten da bideklinaziñua, baiña orduan be, etxe horretan bizi dan pertsonaren izena, gaitzizena edo familixaren abizena aittaketan dogunian, bestela ez.

Oharra: Berba egitteruzkuan, tartekaitten dan noren edo *zeiñen* kasuko -re markia jan egitten dogu eta idazteruzkuan be halaxe itziko dogu.

Etzien izenak: *Juanenian, Bixentanian, Martoluenian, Marianetik, Patxiñera, Hipolittonekuak, dukienukuak, baiña alhondigakuak, mataderixakuak ...*

Denden izenak: *Irizarrenian, Terena, Hankaluzenian, Maibiñian, Eskolatxonian, baiña kooperatiban, Eroskin*
Tabernen izenak: *Pakonian, Txaketuanian baiña, Arranon, Aldapan, Iturritxon.*

Jatetxien izenak: *Paulitonian (Echeverria), Txarridunian, Anttonenian, baiña Etxe Haundin, Zurrusten, Sindikan.*

Fabriken izenak: *Garaiñian (Garairenean), Altunianian, Onraitanian, Arruenian, baiña ULMAN, NATRAN (Zahorren).*

Lekuzko kasuetan ebalten dogu aixkomente: *Pakonian, Pakonekua, Pakonetik, Pakonera, Pakonerako, Pakoneraiño, Pakoneruntz*



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

LABESUKO EGURRA

Lehenagoko denporatan, labesua egitteko orduan egurra bera bakarrik etorten zan basotik. Etorri baiña, soseguz etorten zan, patxaran. Andra batek, egurrari begira aspertuta, halako batian agertu zanian gogor egin otsan egurrorri, hauxe botiaz:

“Etorri bihar baldin bahaiz, etorri, baiña etorriengan aguruago etorri; bestela sekula be ez etorri!”.

Jo! Egurrak hori entzun ebenian, disgusto haundixa hartu eben eta etzan sekula gehixago etorri. Harrezkero geu fan bihar izaten gara basora egurretara, eta geuk ifiñi bihar izaten dogu brintzaatuta labian.



Ikasgaixa: Jenixu txarra dominaitten jakin egin bihar da.

Goguan hartzekuak

-Txo, -to, -ko atziki txikigarrixak

Txikigarri honein funtziñua berbiari halako maittasun kutsu bat emutiaz gain: *maitexo, laztantxo, patxo, laguntxo, txikitxo, astotxo ...*; txikittasuna adierazotia: *gizontxo, andratxo, neskatoxo, mutiltxo, etxetxo, artantxo ...*; edo graduaziño markia eranstia da: *askotxo, gutxitxo, gehitxo, nahikotxo, lartxo, apurtxo, eskastxo, moztxo, luzetxo, nasaitxo, estutxo, zabaltxo, justotxo, pittintxo bat...*

Politto, ederto, aketo, neskato...

Axalko, otsoko, akerko, zaldiko, zaldiko-maldiko...

Beste honeik, berriz, mespretxu kutsua dakoi: *Baldarko, kirtenko, takarko.*

Adb.: Zer moduz **maitte/maittetxo**? **Laztantxo** bat emungo dostazu? Nun da nere **txikitxua**? **Laguntxuarekin** etorri da. Ai, **astotxua** haiz gero! **Andratxo** bat egindda dago. **Mutiltxuakin** hasi dira-ta! Emungo dostazu **pittintxo** bat, probaitteko lain? Barbero horrek lana **politto** egitten dau. **Ederto** konponketan dira horreik bixak. Zelako **baldarkua** haizen! **Takar(ko)** hori!

Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ONTZIXAK I

- | | |
|---|------------------|
| 1. Gauza askotarako ebalten zan ontzi haundixa eta zabala; esaterako, izarak beraketan izteko eta gero garbiketako. | a. Tina, -ia |
| 2. Suegurra, bedarra, lurra, sitsa, ogixak, ortuarixak edo gauza pisutsu samarrak karriaitteko ebalten dan kastaiña-zimitzezko ontzixa. | b. Barreiño, -ua |
| 3. Olixua eruateko ebalten dan buztiñezko ontzixa. | c. Banasta, -ia |
| 4. Perretxikuak, kastaiñak, arrautzak, mantzanillia edo gauza arin samarrak eruateko ebalten dan kastaiña-zimitzezko ontzixa | d. Edarra, -ia |
| 5. Buru gaiñian ura eruateko ebalten dan buztiñezko ontzixa. | e. Otzara, -ia |

EUSKERAZ EGOGI

-(r)ik partitibua galtzeia

- * Eztakot gosia
- * Badakozu dirua?
- * Ez jarri kartelak

Sarri askotan entzun edo ikusten dira holako esaldixak eta jakiñekua da ezezko biribilla emuteruzkuan edo galdera zabala egitteruzkuan partitibuaren -(r)ik atzixka ebali bihar dala.

Ikusi degigun:

A- Eztakot *astixa!
B- Eztakozula astirik? Ba, hartu astixa, eta egin esandakua!

A- Badakozu *dirua?
B- Ze diru gura dozu?
A- Eztotsut esaten neure dirua edo zeure dirua dakozun.

B- Orduan preguntau egidazu ia dirurik dakoten
A- Bueno, badakozu dirurik?
B- Bai, badakot zeozer, zeuri emuteko lain.

A- Zeiñek eztako goserik?
B- Mahai horretakuak!
A- Orduan gosia egitteko fan dittezela pasio bat emutera, eta gosia eginddakuan etorri dittezela.

EZ JARRI KARTELIK ETA EZ EGIN PINTADARIK!

ERANTZUNAK
Lotu honeik berbook euren esangurietarekin
1b
2c
3a
4e
5d



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Txiste kontari

Baxetorran gure Bilintx, Donostiako bertsolari famosua, Kale Barritik behera potraka, epel-epel egindda, hip, hip, eta hip! egiñaz. Eta egin xok trikitx behetik gora etorren beste lagun batekin. Harek ezagutu, eta esan txan:

- Zer moduz Bilintx?

Eta gure bertsolarixak erantzun:

- Ondoo Balantx!



Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ETA ONTZIXAK III

1. Artesnia jeizteko ebalten zan zurezko ontzixa.
 2. Ardaua, txakoliña edo sagardaua gordeteko ebalten dan zurezko ontzixa, lehenguak haritzezkuak edo kastaiñazkuak eta, orainguak, aluminiozkuak.
 3. Janarixa gertaketako ebalten dan ontzixa, zaharrenak buztiñezkuak eta orainguak metalezkuak.
 4. Gelaatzutik txintxiliz egoten zan metalezko ontzi haundixa, kobrezkuak jeneralian.
 5. Txarrixai jatekua gertatu eta eruateko ebalten zan metalezko ontzixa.
 6. Eginddako janarixa eruateko ebalten dan ontzixa.
- a. Eltze, -ia / Lapiko, -ua
 - b. Tartera, -ia
 - c. Txarri-kaldara, -ia
 - d. Kaiku, -ua
 - e. Barrika, -ia
 - f. Pertza, -ia Kaldara, -ia

Esaera zaharrak lotu, ezagutu eta ebali

1. Daguengan bonbon
 2. Etxiak zu etzau behinguan
 3. Dabillen harrixari
 4. Juizioko hagiña
 5. Bakoitzari beria
- a. oolduirik ez
 - b. urten barik euki orainddiok
 - c. eta eztaguenian egon
 - d. Jainkuaren legia
 - e. azpizan harrapoko

Nun dago?

Ia asmaitten dozuen nun dagozen sei itturri honeik:

1. Txikinitturri
 2. Aldailuze (Aldailus)
 3. Troska
 4. Amabirjiñarena
 5. Faltegi
 6. Itturritxo
- a. Arantzazutik gora Urbixarako bidian
 - b. Atzeko kaleko goixenian
 - c. Araozgo Aizkorbe auzuan
 - d. Uribarri auzuan, Urtiagain eta Otadui Haundi artian.
 - e. Torrealdetik gora fanda Lopioso baiño goratxuago.
 - f. Aurreko mendixan, Sarramendiko zelai barrenian, bidiaz goittik.

EUSKERAZ EGOGI

* *Esan xatei* eta * *esan notsain* adizkixak

Esan xat adizkixaren analogiaz ***esan xatei** sortu eta entzuten da, eta **esan notsain**-en pareko ***esan notsain**, horrein forma zuzenak ebali biharrian, hau da, **esan dostet** eta **esan nosten**.

Ikusi degigun ejemplo batzuk akats horreik zuzenketako:

-Eskekuia etorri xat eta euro erdikua **emun xat**.

-Eskekuak etorri xat eta euro erdiko bana **emun dostet**.

-**Gaur** goizian agertu diranian maletak jasoteko **esan dostet**.

-**Atzo** goizian agertu ziranian maletak jasoteko **esan nosten**.

-**Neskatillari** jerseyxa **ekarri xat** eta **mutikuai** fraka pare bana **ekarri dostet**.

-**Gaur** gabian Hiru Txarritxuen ipuiña **kontau bihar dostet umiai**, atzo Txanogorritxorena **kontau nosten-eta**.

-Nun dago?
1f, 2e, 3d, 4a, 5c, 6b

-Esaera zaharrak lotu
1c, 2e, 3a, 4b, 5d

-Lotu honeik berbook euren esangurarekin
1d, 2e, 3a, 4f, 5c, 6b

ERANTZUNAK



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

EUSKERAZ EGOGI

Neike, heike, zeike... ahalerazko aditz paradigmia ezkutauaz

Neike, heike, zeike, geike ... : fan zeike, egin zeike ... eta abar. Aditz forma honeik ezkutauaz doiazela esan leike eta horrein ordeztu *ahal izan* lokuziñua nagusittuaz doiala: gaurko egunian **ahal da fan*, **ahal da egin* edo **ahal naiz geratu* moduko formak besterik ezta entzuten.

Ikusi degigun zela ebalten diran:
— Datorren domekan nora **fan geike** eguna pasaittera?
— Nora **fan geiken**? Leku polit askuak dagoz, ba, urrin fan barik. Gura badozue, kostaldera **fan geike**, Zumaia edo Zarautz aldera.
— Baiña horretarako goiz mobiu biharko gara ze kostako herri horreittan **ezin leike** edozein ordutan aparkau.
— Ez euki horren ardurarik, goizari heldu ezkerdo edozein lekutan aparkauko dogu-ta.
— Ederki, orduan goizeko zortzietan alkartuko gara etxe aurrian.
— Bai, konforme, han izango gara!

ERANTZUNAK
-ALTZARIXAK
1f, 2d, 3a, 4g, 5f, 6e, 7h, 8b, 9c
-Hutsunaak bete ahalerazko eta baldintzazko aditzik ebaliaz
1 zeli(n)ke, 2 leike, 3 neike, 4 zeli(n)ke, 5 leukien, 6 leike

Txiste kontari

Fan ei zan behin gizon bat Aurelioren barberixara ulia mozteko asmotan eta, txandan egon eta gero jarlekuan jarri eta, barberuak prenguntau otsan:

- Zela gura dozu, ba, ulia mozteia?

Eta bezeruak erantzun:

- Isiltasun osuan!

Harek jo txan azaak, harek, gure Aureliori!



Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ALTZARIXAK

1. Gari-kutxa oso haundixa.
 2. Ardixai jatekua izteko lekua.
 3. (Ogi-)oria egitteko ebalten zan kajue berezixa, jeneralian arka gaiñian egoten zana.
 4. Baserriko sukaldietan hormari erantsitta egoten zan jarleku luzia, jatorduetan jeisten zana.
 5. Banketa hankamotza, bizkarleku bagia.
 6. Arkiaren kajoia edo tiraderia.
 7. Platerak eta eranontzixak eukitteko altzarixa.
 8. Jarleku arrunta bere bizkarlekuarekin.
 9. Abereai aliak jaten emuteko zurezko askatxua.
- a. Eromahai, -xa
 - b. Silla, -ia
 - c. Kamela, -ia
 - d. Artesi, -xa
 - e. Arka-kurtxetilla,-ia
 - f. Arka, -ia
 - g. Txiseilu, -a
 - h. Arasa, -ia
 - i. Aulki, -xa

Goguan hartzekuak

-TZAR, -KOTE, -TO atzizki haundigarrixak

-TZAR da gure artian gehixen ebalten dan atzizki haundigarrixa:

Hau da mutiltzarra!

Hau da gizontzarra egin xakuna!

Hor kanpuan egon dan bittartian a zelako neskatzarra egin dan gure Edurne!

Hori dok, hori, andratzarra!

Ikaragarriko sukaldetzarra dako etxe honek.

Harek xakuan bizkartzarra, gerrizarra, eskutzarra, lepotzarra, burutzarra, ipurditzarra!

-KOTE be ebalten da, gutxiago biharbada: gizonkotia, mutikotia, neskatillakotia ...

-TO ezezagunena dala esan geike: Zelako gizatua!

Holakuak be entzuten dira haundittasuna adierazoteko:

Horrek xakok beso-zuztarrak! Harek xakuan berna-zuztarrak!

Hutsunaak bete ahalerazko eta baldintzazko aditzik ebaliaz

- Zuk zeozer egin (1) kotxe hau itxuraketako?
- Kotxe hau ezin (2) konpondu gurata be.
- Orduan zer egin (3)....., txatarretara bota?
- Txatarretara bota aurretik jarri (4)..... harremanetan kotxe zaharren erosleren batekin prenguntaitteko zenbat emungo (5)..... kotxiagatik.
- Hutsa emungo dostai, eta hori baiño urtenbide hobarik ezin ba (6)..... topau, neu hasiko naiz kotxia konponketan.



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Hausnarrian

Euskalkixak edo euskera moldiak

Euskaldunok lau katu izan, eta hala be, ezin alkarri entendi. Haundixa da gero! Berba berak zenbait herritan gauza desbardiñak esan gura ditte.

Ni Bizkaira lehenengo aldiz fan nintzian udia zan. Eguzki galdatan gengozela hara nun entzuten xaten baserritar bateri:

—*Horma horretan gora fan da katua.*

Ago zabalik geratu nintzan. <<holako eguraldixagaz `horma`? Gizon hau burutik xagok!>>, pentsau neben neure artian. Laister jakin neben, oster, `horma`,

guretako izotza esan gura dauena, Bizkaixan paretari esaten otsailla.

Gero Ameriketara artzain fan nintzan, Ohio aldera. Bizkaitar batzuk oso lagun egin nittuan.

Egun batian harettako bateri holaxe entzun notsan:

—*Bai, ahardi honi apua lehenbailehen emun bihar xako.* Ni begiak zabal-zabalik, entendi eziñik. Apua guk Zigakuok, ugalketako garaixan kro-kro, kro-kro... egitten dauen ipixtitxo zakar baiña mesedegarrinari esaten xaugu.

—*Zer esaten dok, Txandres?*—preguntau notsan bizkaitar hari- *Zertarako emun bihar xak apua txarrixari? Apuak pozoiña xakuai.*

Azkenian argittu nostan <<apua>> berarendako <<aketza>> zala. Beraz, ahardia akeztera eruan bihar ebela esan gura eben.

Aspaldi esana da eta egiza be bada. Zazpi probintzietako euskaldunok alkarri entendituko dogun trabarik haundixena berbaan kontua dala.

'Aldarte oneko ipuinak'. Gotzon Garate. (moldauta)



Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------------|----------------------|
| 1. Aittajaun-amandriak | a. Suhia |
| 2. Izeko | b. lloba (sobrino/a) |
| 3. Ume | c. lzeba |
| 4. Suiña | d. Haur |
| 5. Lloba | e. Aitona-amonak |

Nun dago?

la asmaitten dozuen nun egozen sei errota honeik:

- | | |
|-------------------|-------------------------------------|
| 1. Olaldekoa | a. Garagaltzan |
| 2. Santa Kruzkoa | b. Zañartun |
| 3. Lamiategikua | c. Murgixan |
| 4. Zubillagakua | d. Otadui zuhaitzitan edo arboledan |
| 5. Errotabarrikua | e. Altuna fabrikiaren onduan |
| 6. Usakokua | f. Goribarren eta Araotzen |

-Billatu berba honein sinonimuak: 1e, 2c, 3d, 4a, 5b / -Nun dago? 1d, 2c, 3a, 4e, 5f, 6b

ERANTZUNAK

EUSKERAZ EGOGI

*Fateko!

*Jasarteko!

*Ixilik egoteko!

Askotan entzuten dittugu holako agindduak emuten agindduori lehenengo aldiz emuten darian, eta horreitan eztago ziharkako aginddua ebalterik. Aginddu zuzena ebalu bihar da: **Fan!, Jasarri!, Ixilik egon!**

Baiña, norbaitteri esan baxaugu ixilketako eta ez badosku entzun, eta zer? galderia botaten badosku atzera esateko, orduan zuzena da ziharkako formia ebalta:

Egon ixilik!

Zer?

Egoteko ixilik!

Eta badago beste ebalera oker bat be honekin lotuta:

*Fateko bera ➔ Fan dedilla bera! / Doiala bera!

Fateko eta **fan dedilla** sinonimuak dira **esan, eskatu, aginddu, proposau...** moduko aditzekin doiazan mendeko esaldixetan:

• Esaiozu **fateko** = esaiozu **fan dedilla**

Baiña **fan dedilla!** moduko esaldixak ebalten dira hutsik, batez be, subjektua 3. pertsona darian; era honetara:

• *Etorri dedilla gura badau!*

• *Egin degixela berak!*

Esaldi horreitan etxaugu ondokuari aginddurik emuten. Horrein esanguria hauze litzake gutxi gorabehera: *etortia dako, egittia dako berak gogorik badako...*

Holakuetan ezta zuzena —tzeke ebalta:

• **Etoteko gura badau!*

• **Egittoko berak!*

Honein ordez beste honeik ebalu biharko gittuke:

Geurian egingo dogu bazkari pasaria eta etorri dittezela gura badaue!

Hain artistia bada, egin degixela berak!



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Txiste kontari

Egun baten etorri zan sakristaua abadiagana erretabluan San Antonio falta zala esanaz, eta orduan abadiak:

- *San Antonio falta dala? Heu ifiñiko haugu!*
- *Konforme!* —bestiak.

Sakristaua santuaren erropiarekin jantzi euen eta mosu dana

eztxagaz ondo igurtzi ondoren ederto itzi euen erretabluan jarteko.



Hurrengo jaixan, abadiak pulpittora igo eta holaxe esan eben:

- *Ikusi, San Antonio barrixa dakogu. Fan zan hillian desagertutako irudixaren ordiazkua egin eta hortxe dago dotore asko, ia aurrekuak baiño gehixago irauten dauen!*
- *Bai, bai, baiña mobitten ete dan* —behetik eliztar batek.

Eta sakristauak erretabloko idulkittik(*):

- *Mobiuko enauk ba! Elizako euli danak neregana etorten hasi xatak-eta!*

(*)Idulki: pedestal

Goguan hartzekuak

-PE/-BE oso atziki emunkorra dogu, leku-izenetan, izen arruntakin eta zenbait esaeratan be agerketan xaku. Ikusi degigun:

KORPUTZ ATALAK:

Agopeia, besapeia, minpeia, okozpeia, surpeia...

Agopeia: *Agopeian egitten dau berba eta etxako ezer entenditten.*

Minpeia: *Berba egin dauen horrek eztako minpekorik.*

Buztanpeia: *Txakurrak xakok/n buztanpeian!*

Ostikopeia: *Ostikopeian naukai, lana gogotik eragin eta gaiñetik barre egin!*

TOPONIMUAK:

Harripe (tabernia), Aittape (Baserri- eta famelixa-izena), Sandalipeko presia (Jaturabe), Haizpeekuak (Urrusulakuak)...

LEKU ARRUNTAK:

Presapeia (Usakoko presapeia), malatupeia, etxepeia, elizpeia, zinepeia, arkupeia, aterpeia, zubipeia, erlojupeia, automobilpeia, mahaiepeia, armarixopeia, arbolapeia, keizapeia eta kontzejupeia eta, hortik, Kontzejupetik, gure aldizkarixa.

Ohepe: *Sartu, sartu barrura, gurian badira uhe hainbat uhepe!*

Illunpe: *Araozgo lehenagoko zine-aretuaren izena.*

Gonapeia: *Alde egizu nere gonapetik.*

Txintxinpeia: *Etorri barrura txintxinpeian egon barik.*

Euripeia/ Laiñopeia: *Euripeian / laiñopeian pasau dogu eguna.*

Sasipeia: *Basabehixak sasipeian ezkutaitten dittuk ihesixan doiazanian.*

Suppeko artua: *Txingarren azpitan erretako artua edo tremesa.*

A, eta ez ahaztu Oñatikuak *kondepekuak* izan gariela XIX. gizaldira arte!

Esaera zaharrak osotu, ikasi eta eballi

1. Lan honekin etxuagu/etxonagu
2. Zuelakuakin etxuagu/etxonagu behinguan
3. Honegatik edo haregatik
4. Errementarixaren etxian
5. Etxian-etxian gelaatzua baltza

Aukerak: a) *etxeko lanak egin barik* b) *zotza burduntzi* c) *eta geurian baltzena* d) *fraka barririk egingo!* e) *Naparrua barrixa egingo.*

EUSKERAZ EGOGI

Zer moduz? eta Zer moduzkua? desbardinddu

Lehenengua zela/nola galderiaren sinonimua da, eta bigarrena zelakua/nolakua galderiarena.

Ikusi degigun ejemplo batzuk:

Zer moduz (egon ziñain) *atzoko bazkarixan? Ondo, primeran, uste baiño hobeto... egon giñan.*

Zer moduzko bazkarixa *emun otsuen, ba? Ona, gozua, primerakua, ederra, ondo goxautakua, bikaiña, aparta... emun oskuein*

Zer moduz zagoz? *Erre-erre egindda nago. Edo, kokoterañño, haserre, sutan, pozik...*
Atzo zer moduzko eguna *pasau zebein Donostian? Egun elegantia pasau geben. Edo, txarra, betia, alaia, tristia, luzia, akabera bagekua...*

Kalian:

Zer moduz bizi haiz?

Zer moduzko bizimodua *doiak/n?*

Ortuan:

Zer moduz datoz tomatiak?

Zer moduzko tomatiak *datoz?*

-Esaera zaharrak osotu
1d, 2e, 3a, 4b, 5c.

ERANTZUNAK




ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Ez kikildu, ez lotsatu

EUSKALDUN KOPURUA



Itturria: *Euskararen Datu-Basea, 2011

*Euskeriaren Datu-Basia (EDB) euskeriaren datu estatistikuen biltegi bat da, Soziolinguistika Klusterrak eta Aztiker-ek alkarlanian egindakua. Egitasmo honen helburu nagusixa, euskeriaren gaiñan dague informaziño estatistiko sakabanatua batu, bateratu eta danon eskura jartia da.

Oharra: Portzentajiak biribil barruko lurralde bakoitzaren biztanliari egitten xaue erreferentzia.

Datu horreiri kasu egiñaz, herrixan bagara 7.952 euskaldun, eta moltzo horretako gehixenak bertako berbetia ezagutu eta egitten dogu.

Debagoixenian, berriz, 38.135 lagun dira gure antzeko berbetia ebaltan daueiñak. Eta Deba arruan edo ibarrian, 113.573 bizilagun bizi bagara, horreittako 69.398 euskaldunak gara, % 61,10, eta eurak danakin antzekotasun haundixa dakogu hizkuntza kontuan. Eta, azkenik, Euskal Herriko mendebaldian bizkaieria egitten da eta horren barruan gagoz gu: 200.400 euskaldun ei giñan bizkaieraz berba egitten gebenak, euskaldun guztien %33 (Euskal Dialektologiaren hastapenak, UEU, Iruñea 1983) liburuaren arabera. 2011ko datu barrixoneik, berriz, diñoskue bizkaieraren eremuan 419.778 euskaldun gagozela, guztien % 45,49.

Beraz, bizkaieraren eremuan bizi gara euskaldun gehixenok eta bizkaieria da, zubereriarekin batera, elementu morfologiko eta esamolde arkaikuenak gorde dittuena.

Horrez gain, geure berbetia lantzeko materialik etxaku falta, hor dittugu danon eskura, bestiak beste, Candido Izaguirreren hiztegia, *Oñatiko euskeria* gramatika-liburua, Manuel Umerezen literatur lanak -gure klasiko bakarrarenak-, eta barrixaguak -horrein artian aittagarrixenak Olaitturri kultur taldekuak, *Anexiñua oñatiarrez*, adibidez-, baillarako idaztarauak, *Arrate* eta *Bizkaia* irratixak (azkenengo honek 25 urte bete zittuan 2015ian), bideo-pasartez osotutako bi web orri: **ahotsak.com** eta **euskalkiak.eus** eta abar luzia.

Zorionez, gaurko egoeria ezta orain dala urte batzuetakua, ezta hurrik emun be! Pausu asko emun dittugu eta herriko euskeria ikasi eta ebali gura dauenak ezta aitzakixarik. Oñati, beste kontu danetan moduan, hizkuntza kontuan be ezta isla bat, baillarako herrixakin era guztietako hartu-emunak dakogu: pertsonalak, hizkuntzazkuak, kulturalak, ekonomikuak eta abar; arrua be hor dago eta mendebaldiak be pisu haundixa dako guregan. Gure auzoko diran horreik danakin harreman saria josten goiaz egunetik egunera eta frutuak agerketan doiaz; beraz, geuriari eusterakuan **ez kikildu eta ez lotsatu**; izan be, batzuk uste daueiñaren kontra, ezgara hain gutxi eta aguan dabigun hizkuntzia ezta hain kaxkarra; aldrebes: geuriak ezta beste iñorenaren inbidixarik, zeezer faltaittekotan, gaiñeko hautsa kentzeia eta plazaraketia besterik ezta falta!



EUSKALKIXEN MAPIA (Koldo Zuazo, 1998)



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

EUSKERAZ EGOGI

*Beste egunian

Takian-potian entzuten dittugu holako esaldixak:

- *beste egunian Jone ikusi neben,
- *beste egunian Pello etorri xakun,
- *beste egunian M^a Karmenekin egon nintzan...

Horreik erdarazko 'el otro día' formiaren kalko okerrak dira. Denpora zihaztu bageko ideia hori adierazoteko beste forma honeittara jo bihar dogu:

-Lehenko egunian / Lehenguan hauxe entzun neben plazan: ulixa ezkonketan dala. Egixa da?

-Aurrekuan egon giñanian horixe komentau nostazun, lanerako diar egin dotsueilla, hala da?

-Fan zan egunian autobusaren zain nenguela Miren pasau zan bere mutillarekin

Hausnarrian

Hizkuntzia

- 'Guri debekau egin oskuen', esaten daue zaharrak, 'eta hala ta be egin egitten geben! Orain, zuek eztozue egitten, aukera guztiak izanda!'

- 'Geuk be egingo geke', erantzuten dostegu guk, 'bizio arriskutsua balitz edo debekauta balego!'.

'Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako', 2010. Joseba Sarrionaindia (moldauta)



Ez kikilddu, ez lotsatu

Eregi bentania!

Leihua: bentana txikiña. **Bentania:** Leiho haundixa.

Sasue batian, etxietako hormetan argittasuna sartzeko zabalketan ziran bittarte guztiak leiho izenez izentaitten ziran, baiña denporiagaz bittarte zabalaguak eta haundixaguak egitteko gauza izan ziranian, *leiho* etzan beste berba bat hartu bihar izan euen asmakizun barrixa izentaitteko, hortik dator *bentania*. Orkatzategiko haitzaren goixenian dagueen zuluari *Atxuloko bentania edo, Urruxolan, Itsusabeko bentania* be esaten xaugu.

Gauza bera pasau zan *aulki* eta *silla* berbaekin. Bata zan jarleku txikiña, behixak jeisteko ebalten zana eta bestia sukalde edo egongelan jasartekua; euren artian desbardiñak ziranez, bi berba bihar ziran hori adierazoteko. Hortik, batari aulkixa eta bestiari sillia esatiarena. Herrixan sillak egitten zittuana sillerua zan eta, hortik, *Sillero* oiñetako dendiarene izena.

Gaur egunian bardin pasaitten da telefonua eta smartphonarekin, bixak komunikagailuak dira, baiña eztira bardiñak.

Orduan, iñork esaten badotsue "eregi bentania" euskera zelebria dala, **emun azalpena eta ez kikilddu eta ez lotsatu zeure euskeriarekin.**

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------------|---------------------|
| 1. Illoba | A. Adiskide |
| 2. Aittajuna/Aittaitta | B. Lehengusu txikia |
| 3. Primo | C. Lehengusina |
| 4. Erran | D. Aitona |
| 5. Prima | E. Arerio |
| 6. Amandria/Amama | F. Anaia |
| 7. Lagun | G. Biloba |
| 8. Neba | H. Amona |
| 9. Etsai | I. Lehengusu |
| 10. Bigarren primua | J. Errain |

Nun dago?

Zein auzotan dagoz -etxe sufijuagaz osotutako baserri honeik?

- | | |
|---------------|----------------------------|
| 1. Baketxe | A. Zubillagan eta Murgixan |
| 2. Kipuetxe | B. Lezesarrin |
| 3. Arretxe | C. Araotzen |
| 4. Barrenetxe | D. Berezaon |
| 5. Matietxe | E. Urribarrin |
| 6. Goikoetxe | F. Zubillagan |
| 7. Goixenetxe | G. Urruxolan |
| 8. Dolaetxe | H. Garibain |
| 9. Makiñetxe | I. Garibain |